

ELIZ LITURGIA ETA EUSKARA BATUA

Patxi URIBARREN

I. Aurkezpena

Aita Villasanteren omenaldi libururako lan bat aurkezteko aukera eskaini zitzaidanean, aspalditik asmoetan pil-pil nerabilen gai hau plazaratu eta, neurri apal batetan, bederen, aztertzeko erabaki sendoa hartu nuen.

Gai honen egokitazunari buruz, Aita Villasante, alde batetik, elizgizona izanik liturgiaren ingurua oso ongi ezagutzen duena izatea eta, bestetik, azken urteotan, Euskaltzaindiko buru izan dugularik euskara batuaren lehen urratsetan gidari izatea izan ditut kontutan.

Bestalde eskerronak bere omenaldirako lan bat egitera bultzatu nau, bere eskuz sartua izan baintzen Euskaltzaindira urgazle gisa eta urteetan zehar beti oso harrera ona egin bait dit.

II. Sarrera

Hainbat izan dira, bestalde, lan hau egitera bultzatu nauten arrazoiak. Beste-rik beste, honakook azpimarratuko nituzke:

1a). Ezaguna dugu euskararen historian eliz liburuek izan duten garrantzia. Eta ez bakarrik Bibliaren itzulpen ezberdinek. Urteetan zehar, maila handi batean, bederen, euskaldunak alfabetatzeko bide gertatu izan dira elizak kristau-bidea irakasteko erabiltzen zituen liburuak. Horrela ikusi izan dut nire ingurukoengan. Nire amak, adibidez, oraindik gaztelerarik ez zekien garaietan, parra-parra irakurtzen zuen euskaraz, beraren alfabetatze bide bakarra kristau-ikasbide liburua izan zelarik. Gero euskal aldizkariak eta irakurri izan ditu ikusmena zeharo galdu duen arte.

2a). Mendeetan zehar, Vatikanoko azken kontziliararte, elizetan ofizialki

erabili izan den hizkuntza latina izan denez, elizkizunetarako eta mezaren ospakizunetarako lagungarri erabili izan diren kantu eta azalpen liburuek nahiko eragina izan dute, batez ere azken bi mendeotan eta halako lagungarrien bidez, azpieuskalkietako tokian tokiko berezitasunak gaintuz, euskara bateratu mota bat heldu izan da euskalki bakoitzaren zein Euskal Herri osoaren eremu zabal osora.

3a). Elizaren liturgia herri hizkuntzetan ospatzeko elizak emaniko urratsa aldaketa izugarria izan da, bereziki, gure hizkuntzaren antzeko egoeretan daudentzat, horrek testuak moldatzean ahalik eta hizkera motarik bateratuena erabiltzea ekarri izan duelako eta hizkuntzari berari ere onerespen edo begirunea eman diolako. Batzuren ustetan beranduegi etorri da aldaketa hori, aurreko egoera jasan ezina zelako edo. Orokorrean, gure kasuan, hala gertatu dela esan dezakegu. Hala ere, ez dakit zer gertatuko zen gerra zibilaren amaieran euskararen erabilera debekatu izan zenean, elizetan gaztelera erabili beharrean izan bagina. Une hartan latina gaztelaren indarrari eusteko horma sendo gertatu zela uste dut.

4a). Vatikanoko II. eak emaniko urrats horren ateetan ere, izan genituen meza-ko testuak euskaraz jartzeko ahalegin batzu. Bereziki aipatu nahi nituzke hemen, niregan eragin handia izan zutelako, esku artean izandako bi liburu. Hain zuzen ere Orixeren *Urte guziko meza-bezperak* (1950) eta Kerexetaren *meza-liburua* (1963). Agian beste bikoitz bat gaineratu behar zaie, hots, lehenengo Iratzederiek eta gero Akesolok argitaratutako *salmoak*. Nik ikastetxeko urteetan, beste batzuk gaztelera egiten zuten bezala, Orixeren liburua izaten nuen mezalagun. Horrela, bide batez nere burua alfabetatzea eta beste euskalki batzuetara hurbiltzea lortu nituen, zalantzarik nuenean latineko testura begiratuz. Poz handia eman zidan, Aramaion baino ez zirela erabiltzen uste nuelarik, «Aitajauna» eta «Amandrea» (Aitita/Aitona - Amama/Amona hitzen orde) Orixeren liburu horretan erabiliak ikusteak.

5a). Euskarak berak ere, elizan halako aldaketak gertatu izan diren une berean, orokorrean 60. Hamarkadan hasita, aurrerakada handia izan du. Euskaltzaindiaren gidaritzapean, bestalde, euskara batu edo standarra sortzeko eta bultzatzeko lehen urratsak ere eman dira Arantzazuko euskaltzaleen bilera ospetsuan (1978) hasita. Hor ihardun izan dute ikastolek ere jo eta ke euskararen alde, inoiz baino larriagoa ikusi izan delarik euskara bateratu horren premia testuak euskaraz jartzeko orduan. Guzti horrek, zer esanik ez, eragin handia izan du, apropos euskara batu baten bila joan ez bada ere, liturgiako ahalik eta testurik bateratuenaren bila jotzerakoan.

6a) Aurreko guzti horri euskal munduan azken hogeitahogei urteotan izan diren aldaketa politiko eta sozialak erantsi behar zaizkio. Ordurarte hain hertsiki itxita egoniko mugen gaintik, zeharo ugaritu eta erraztu izan dira Iparalde-Mendebaleko euskaldunon arteko harremanak. Guzti hau areagotu egin da

azken aldi honetan euskarako komunikabideak (ETB, euskal irratiak, Euskaldunon *Egunkaria*, aldizkariak, . . .) ta irakaskuntza (Ikastolak zein gaveskolak) direla bide. Hegoaldetik Iparraldira joan beharrean aurkitu diren errefuxiatuek ere izan dute, dudarik gabe, eragin handia Iparralde-Hegoaldea hizkuntza alorrean hurbiltzean. Mendeetan ez bezalako harreman estuak bideratu izan dira Euskal Herri osoko euskaldunon artean. Horrek, aipaturiko euskara batu, standar edo dena delako horren premia larria sortu izan du bazterretan.

Euskal Herriko Eliza, bada, Kontzilioaren eskakizanak betez herri kizkuntza elizkizunetan erabiltzerakoan, liturgiaren beharrizanei erantzuteko euskalki eta azpieuskalki ezberdinetan zatikatutako hizkuntza bateratu beharrean aurkitu izan da. Erromatik, gainera, eskari-agindu zorrotzak etorri ziren testu bakar bat egiten saiatzeko eskatzen zelarik. Beraz, lan sakon eta garrantzitsua bideratu beharrean aurkitu izan dira elizbarrutietako arduradunek.

Nik hemen bildu, erkatu eta aztertuko ditudan testuak urteetan zehar euskara bateratu hori egiten emaniko ahalegin luze eta neketsuen emaitza dira. *Euskararako Hiztegia* egin genuenean, eliz testu bateratu horiek aztertu nituen Euskal Herri osoko hitzik hedatuenak hautatzeko eta argi ikusi nuen oso aberasgarri gertatzen zela talde lanean hainbesteren artean burututako lan izugarri hori. Eginiko testuen bidez azpieuskalkien arteko osozko batasuna lortu zen eta argitaratutako hiru testu antzerakoan artean Euskal Herriko euskalki nagusien hurbilketak handia, Bizkaiera, Gipuzkera eta Lapurteraren ardatz inguruan. Orduan, (*Euskararako Hiztegia* egiterakoan) lexiko alorra jorratzeko hasitakoa orain ikuspegi zabal eta orokorragoa erabiliz plazaratu nahi nuke, Eliza katolikoak, besterik uste izan bada ere, batasun bidean eginiko urratsen berri emateko.

III. Izenburuko hitzei buruzko zehaztapenak

Idazlan labur honetan aurkeztu nahi gudan gaia aztertzen hasi aurretik ezinbestekoa iruditzen zait, nahasbiderik gerta ez dadin, izenburuan jarritako hitzen adiera taitzea, «liturgia» zein «euskara batua» oso adiera zabalean zein estuan azter daitezke eta. Zer esanik ez, mugak egokiro ezartzeak arazoa argiago eta sakonkiago ulertzen lagunduko digu.

1. **Liturgia.** Hemen, liturgia, Elizak, gehienbat sakramentuen inguruan eta, bereziki, eukaristiaren inguruan antolatua dela burutzen duen gurtza publiko ofizialari deituko diot.

Elizaren gurtza publiko eta ofizial hori Eukaristia edo mezaren inguruan eta berari begira burutzen denez, alor honetara mugatuko dugu azterketa ere. Gainerako otoitz eta ospakizun motak (orduen liturgia, gainerako sakramentuak, etab.) alde batera utziko ditut, beraietan egiten den hizkuntzaren erabilerak garrantzi txikiagoa duelako.

Egia esan, beste alor horietan ere egin dira hizkuntz ahalegin handiak, gaur egun testu guztiak euskaraz jarriak direla (gogoratu Bergarako Euskaltzaindiaren Kongresuan Orduen Liturgiari buruz irakurritako txostena), baina noizbehinkakoak eta jende gutxiagok parteharturik ospatzekoak direnez, nahikoa izango da, oraingoz, hizkuntzaren erabilerari dagokionean, edonork, nahi izanez gero, euskaraz burutzeko aukera osoak dituela gogoratzea.

Hemen, beraz, igande eta jaiegunetan bereziki (astegunetako euskaristiak barne direla, noski) eukaristia edo meza santua ospatzerakoan erabili ohi den hizkuntzaren azterketara mugatu nahi dut lan hau. (Ikus *Liturgi testuen sailkapena*)

2. Euskara batua. Orokorrean zer esan nahi duen denok baldin badugu ere buruetan, era ezberdinez uler daiteke barnean duen edukina. Guztiok dakigu, bestalde, oraindik ez dugula guztiz egina sarri aipatzen dugun euskara batu hori. Hala ere, badugu nondik norakorik, hain zuzen ere, euskaldunok hizkuntz baliabide berdintsu eta orokorrenak erabiliz elkar ulertzea bideratzen duen hizkuntzaren erabilera bateratua edo.

Euskara batua aipatzean, euskaldunon arteko elkar ulertze egokia eta eroso ahalbideratzen duten gutxienezko urrats batzu izango genituzke, bada, eta begi aurrean osagarri gisa har daitezkeen beste zenbait elementu. Nik hemen aipatzen dudana euskara batua, ez da, behar bada, doi-doi Euskaltzaindiak orain arte eman izan dituen arauen gutxienezko mailara iritsiko, liturgian egin ohi den hizkuntzaren erabilera, testuetan idatzita baldin badago ere, batez ere mintzaira mailakoa, entzun eta erantzutetako delako eta Euskaltzaindiak proposatutako bidea, batez ere, euskara idatzirako.

Hori dela eta, behar bada, «batua» jarri beharrean «bateratua» jarri beharko nuke, baina, bego horrela ohar honen bidez nahiko argituta geratu baita auzia. Bestalde, gogora ekarri behar da, baita ere, euskara batua burutzea ez dela elizgizonen zeregina Euskaltzaindiarena baizik. Honako hau kontutan ez hartzeak eremu ezberdinen nahasketa ekarri izan du sarri askotan eta eztabaida antzurik ere bai.

Era berean, gaia punturik puntu aztertzerakoan ikusiko dugunez, liturgian erabiltzeko testuak euskaratzerakoan, elizbarruti eta euskalki ezberdinekoak ziren pertsona gaituek elkarren artean halako lan zabala eta oparoa burutuz eginak izateak aurrerapausu handia ekarri du, esan den bezala hurbileko euskalkien zein azpieuskalkien bateraketa lortzeko bidea ere izan delako.

Hemen «Euskara batua» esaterakoan, bada, ez dugu irakaskuntzarako testuak egin direnean erabili ohi dena bezalako erizpide estuen araberakoa denik esan nahi, argitaraturik eman zaizkigun hiru testu ezberdinen bertsioak, euskalkien eremuko barneko bateraketa lortzeaz gainera (testu bakarra Bizkai osorako, Gipuzkoa-Nafarrorako eta Iparralde gehienerako, Xuberorako izan ezik), oso hurbilekoak direla baino.

IV. Liturgia testuen historia laburra

Ez zen Euskal Herri osoko batzorderik sortu *Meza Liburu Batua* agertu zen arte; 1969. urtean Elizbarruti bakoitzean behin-behineko lana egin zen aurreko Meza Liburuei jarraituz.

Bizkaian Liturgi-batzordeak Kerexetaren *Meza liburua* erabiltzeko behin-behineko baimena eman zuen; hala ere Aita Onaindia eta Aita Akesolok igande eta jai nagusietarako meza-fitxak atera zituzten, itzulpen berriak egin zirelarik: Mezaren Egunerokoetarako, Bateo eta Funtzionoko Sakramentueterako, Prefazioak eta Aste Santuko Testuak.

Gipuzkoan, Orixeren liburua erabiltzeko baimenik lortu ez zenez, oso-osorik lan berria egin zuten hasieratik; horrela, urte guztiko mezak eta irakurgaiak euskaratu zituzten eta euskara-erderako edizioak atera. Garai horretan hasiak ziren, jadanik, Gipuzkoa-Bizkaikoak, behintzat, elkarrekin lan egiten, Mezako Egunerokoan eta herriak parte hartzeko zatietan ahalik eta itzulpenik antzerakoena egiteko asmotan.

Meza Liburu Batua agertu zenean, Hiru Elizbarrutien arteko Batzordea sortu zen, Baionako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako apaizekin, Gotzainen oneritzia zuela. Donostian izaten ziren bilerak, urte guztiko mezarako otoitzekin hasi eta irakurgaiak euskaratzeko izan zirelarik. .

Bakoitzak etxean egiten zuen bere lana eta guztien artean eztabaidatu eta azken ukitua hartzen zuen; bateko eta besteko euskaldunik gehienek errezago ulertzeko itzulpena egiten ahalegindu ziren. Nafar-Gipuzkera antzeko euskaraz atera zen itzulpena, gero Lapurdikoe eta Bizkaikoe, argiteratzerakoan, beren aldaketak egiteko baimena zutelarik. Horrelaxe agertu ziren lehen itzulpenak Baionan eta Bizkaian, zatika-zatika, liburuki txikietan, batez ere jai nagusi eta ingandearako.

Itzulpen horri, gero, bigarren eskualdi bat eman zitzaion; honetan ez zuten parterik hartu Baionakoek. Horregatik Bizkaiko lehengo argitaraldietako meza-irakurgaiak eta Baionakoek alde handiak zituzten, dudarik gabe, geroago egin zirenekin, hots, geroago Meza Liburu osoan eta Irakurgai Liburu osoan agertu ziren testuekin.

Orduen Otoitza liburua (Breviariuma) itzultzerakoan Baiona aldekoek ez zuten parterik hartu eta ez daukate euskal itzulpenik.

Aparteko bilerak egin ziren *Gure Aita* berriztatua euskaraz jartzerakoan Iparralde-Hegoaldeko bertsioak berdintzeko asmotan. Ahalegin horietan du iturburua «Aita Gurea» erabili beharrean «Gure Aita» (Iparraldeko eran) erabiltzeak.

Lekuona zaharra zen itzultzaileen buru egiten zuena; berak kopiatzen zituen testuari egindako azken ukituak. Liturgi-batzordeko idazkariak banatzen zuen batzar bakoitzerako lana. Eta Eskrituretan gaitu batek eskuhartu zuen beti batzordean, bere eritzia eztabaidazko gaietan eskaintzeko.

Honakook dira argiraratutako bertsoien datuak:

Gipuzkokoak:

- a) *Aldarako Liburua* (1984) 20/29 zm. tako 894 orrialdetako liburu mardula.
- b) *Irakurgaiak* (1978) 24/30 zm. tako 1066 orrialdetako liburu mardula.

Bizkaikoak:

- a) *Aldarako liburua* (1984) 20/28 zm. tako 886. orrialdetako liburu mardula.
- b) *Irakurgaiak* (1988) 24/30 zm. tako 1090 orrialdetako liburu mardula.

Lapurdikoak

- a) *Aldarako liburua* (1971) 19, 5/17 zm. tako 763 orraildetako liburu mardula.
- b) *Irakurgaiak* (1972) 20/27 zm. tako 13 liburuki txiki (guztira 1. 000 orrialde inguru)

V. Liturgia testuen sailkapena

Liturgia hitzaren adiera mugatzerakoan, bestalde, hemen aztertu nahi dudan alorra, bereziki, eukaristia liturgia edo meza santuari dagokiona dela esan dut. Hau da, igandero eta jaiegunetan kristau herri katolikoak ospatu izaten duen otoitzaldi garrantzitsuari dagokiona.

Meza barneko egituran, alabaina, jendearen partehartzea era askotakoa izanik, hizkeraren erabilera oso ezberdinak ageri zaizkigu eta hori dela eta, gerora proposamenik egin nahi bada, bederen, atal ezberdin bakoitzari, hizkuntzaren ikuspegiz daukan garantzia eman behar diogu. Horrela, besterik beste, honelako hizkuntz erabilerok bereiztuko nituzke:

1. **Jendeak erabiltzeko diren testuak.** Testu hauek jendeak buruz ikasi ohi ditu eta otoitz bateratua elkarren artean eragozpenik gabe burutzeko erabiltzen direnak dira. Zer esanik ez, garrantzirik handiena duten testuak dira, ezinezkoa gertatzen baita testu ezberdinak erabiliz elkarren arteko otoitzik burutzea. Testu hauen aurkezpen konparatiboa egingo dut, aipaturiko hiru bertsoietan zenbateraino diren berdinak eta zenbateraino ezberdinak argiago ikusteko. (Ikus 1. Eranskina). Egia esan, atal hauek izan dira batasuna lortzeko asmoz gehien jorratuta eta zainduta ageri direnak. Mezan erabilitako honelako otoitz batzuk (*Gure Aita, Aitare, Sinesmena, Aitortza*) bestalde, eragina izango dute Euskaristia liturgiatican kanpo ere, kristauok eguneroko otoitzetan erabiltzeko testu bilakatu direlako.

2. **Gehien errepikatzen diren testuak.** Hauek euskaristi-otoitzak edo kanoak genituzke (2. Eranskina). Batikano II. aren ondotik liturgian izandako berrikuntzek halako otoitz testu bat baino gehiago izatea ekarri du. Testu hauek, apaizek elkarte osoaren izenean egiteko otoitzak izanik ere, meza gehienetan (hileta-meza, ezkontza-meza etab. tarteko direla) errepikatu egiten direnak dira. Testu hauek ere garrantzi handia dute, jandeak, egunean egunekoak ez izatean, erdi buruz ikasi eta jarraitu izaten dituelako. Testu hauek ere nahikoa berdintsu eginak izan dira.

Hemen ezin testu guztiak eskaini eta gehien erabilia izan ohi den II. Kanona hartu dut ikerketa konparatiboa egiteko, argitaratutako hiru testuen artean diren aldeak eta berdintasunak begirada batetan ikus daitezten.

Esan bezala, aurreko testuek adineko garrantzia ez badute ere, ahalik eta hizkuntz batasunik handiena beharko luketenak dira nire ustetan. Alde batetik, geroago eta ugariagoak direlako euskalki ezberdinetako pertsonen elkarturik egiteko eukaristiak eta, bestetik, zenbait apaizek batera partehartuz ospatzen diren Eukaristietan oraingo testuetan aurkitzen diren aldaki txikiak nahaste-bide gertatzen direlako.

3. **Entzuteko bakarrik diren testuak.** Multzo hau, irakurgaiek, eguneko otoitzek eta prefazioek osotuko lukete. Guztiak eliz elkartearen izenean pertsona bakar batek irakurri eta gainerakoek arretaz entzunez bereganatzekoak dira. Hauek unean unekoak izanik, aprobeitxamendurik handiena ateratzeko, ahalik eta ulergarritasunik handienaz egokituak izan behar dute. Hori dela eta, oso bidezkoztat jotzen dut euskalki bakoitzean euskaratuak izatea.

Oso-osoan mintzaira mailakoak genituzke eta aberasgarri gerta daitezke euskalki ezberdinetakoak direnentzat ere, testu osoa zehatz-mehatz ulertu ez arren. Hauek ere, batasun bidean benetako urrats garrantzitsu izan ditugu, euskalki bakoitzaren eremuetako pertsona gaituenek eginak izanik, euskalkien mailako batasun handia lortu dutelako. Eta horrela, hori lortzerakoan, euskara baturantz urrats handia eman da. Multzo honetan barnesartuko nituzke abestiak, hitzaldiak eta azalpenak, helburua pertsona bakoitzak mezua ahalik eta zehatzen jasotea dutelako. (Ikus 3. Eranskina).

VI. Eranskinei buruzko azalpenak

Testuen artean ikerketa konparatiboa egiterakoan, Gipuzkoako testua hartu dut oinarritzat, erdiko euskalkia izateaz gain lurralderik zabalena (Gipuzkoa-Nafarroa) barru hartzen duelako. Testu hori gidari dugula honako aldakiok aurki ditzakegu:

1. **Lehen eranskinari buruzko azalpenak:** Ikusi ahal izango dugunez nahiko txikiak dira hiru bertsioren arteko ezberdintasunak, ahalegin txiki bat eginez nahiko erraz gainditzekoak genituzkeelarik:

1. 1 *Bizkai-Gipuzkoako testuak*: ia-ia berdinak dira. Argi ikusten da batasunik handiena lortzeko ahalegin handiak eginez gauzatuak izan direla. Benetan, jarraian ikusiko duzue, oso txikiak dira bertako bereizketak:

a) *Hizki bakarrekoak*: Bakea/pakea. autor/aitor; gaitzezan/gaitzezen; nire/nere; zuoi/zuei; dodala/dudala; naz/naiz; parkaturik/barkaturik; eroan/eraman; do-gu/dugu; zeure/zure; zeuk/zuk; dozu/duzu; eskui-aldean/eskuin aldean; zeu/zu; andra/andre; zana/zena; jatsi/jaitsi; igon/igo; dagoana/dagoena; dot/dut; alkartasun/elkartasun; diran/diren; gizonokaitik/gizonongantik; gugaitik/gugatik; kurutzeratu/gurutzeratu; barriz/berriz; dau/du; emoilte/emaille; dauana/duena; bateo/bataio; biztuera/piztuera; zarala/zarela; irakatsiari/erakutsiari; zarana/zarena; bezela/bezala; emoiguzu/emaiguzu; onetako/ontako; zeurea/zurea; zeure-ak/zureak; esaizu/esazu; zoaze/zoazte.

b) *Adizkerak edota hitz ezberdiak*. Daiguzan/ditzagun; deutset/diet; dagio-zuela/dezaiozuela; gaizala/gaitzala; gagizuz/gaitzazu; zagoz/zaude; josia/iltzatua; esan ebenez/esan bezala; ebana/zuena; daukaguz/dauzkagu; daukaz/dauzka; bage/gage; dagigun/dezagun; deutsegun/diegun; osatuko/sendatuko.

1. 2. *Lapurdi-Gipuzkoako testuak*: Beraien artean alde handiagoa nabari da; Iparraldeko testua ez dago hain bateratua. Hala ere Iparralde osorako testu bakarra egiteko eginiko ahalegina txalotu beharra dago, geroago Zuberorako (benetan egoera berezia dute) testu moldatu bat aparte argitaratu bada ere.

a) *Hizki bakarrekoak*. Izpiritu/espíritu; Sainduaren/santuaren; bakea/pakea; bekatuak/pekatuak; mixterio/misterio; guziz/guztiz; zueri/zuei; dutala/dudala; egin beharrak/eginbearrak; eginez/egiñez; orregatik/orregatik; guziera/guzier; ahaltsu/aaltsu; egile/egille; ereman/eraman; bizitzera/ bizitzara; ager/agertu; bihotz/biotz; gizoneri/gizonei; zaitugulakotz/zaitugulako; ahuspez/auspez; guzia-halduna/guztialduna; sinesten/sinisten; ahaltsu/aaltsu; guziena/guztiena; lehen/len; aita ganik/aitagandik/ eгина/egina; izaite/izate; haren/aren; gu gizonen gatik/gu gizonongatik; Birjina ganik/Birjiñagandik; oinazetan/oñazetan; hila/hilla; hobiratua/obiratua; zerurat/zerura; igan/igo; emailte/emaille; goresmen/gorespen; hartzen/artzen; ahoz/aoz; hitz-egin/itzegin; katoliko/katoliku; orai/ orain; distirak/diztirak; gorenetan/goienetan; ziena/zerana; nahia/naia; emaguzu/emaiguzu; huntako/ontako; zorduner/zordunei; ereman/eraman; tentaldirat/tentaldira; bainan/baña; ospe-ta/ ospe eta; huna hemen/ona emen/ errazu/esazu.

b) *Adizkera edota hitz ezberdinak*. Benedikatua/ bedeinkatua; haurrideak/ senideok; bakatore/pekatari; diotet/diet; Andre dena Maria/Andre Maria; dezo-zuen/dezaiozuela; baitugu/dugu-ta; urrikal/erruki; errana/esana; jujatzerat/epaitzera; izanen/izango; igurikatzen/itxaroten; piztea/biztuera; sinestearen/sinesmenaren; manatu/agindu; diegunaz geroz/diegun ezkerok.

2. **Bigarren eranskinari buruzko azalpenak:** Gainbegirada egitean ikusten denez, kanonen arteko testurik laburrena aukeratu dudan arren, proportzioetan asko ugaritu dira aipaturiko hiru bertsioren arteko ezberdintasunak. Hala ere bateratzeko ahaleginik egin dela nabari da.

2. 1. *Bizkai-Gipuzkoako testuak:* oraingoan ere, nahiko bateratuak ageri zaizkigu. Oso gutxi dira bertan aurkitzen ditugun ezberdintasunak eta gehienak, gainera, nahiko erraz gainditzekoak eta aurreko kasuan agertutakoak.

a) *Hizki bakarrekok:* ardao/ardo; zeure/zure; isuriaz/ isuriz; kurutzera/gurutzera; emonez/emanez; onetatik/ontatik; neure/nere; emongo/emango; dana/dena; bardin/berdin; barriz/berriz; emon/eman; barri/berri; orregaitik/orregatik; biztuera/piztuera; eskeintzen/eskaintzen; dagoan/dagoen; Eleizea/Eliza; artzainarekin/artzaiarekin; biztuteko/ pizteko; arpegiaren/aurpegiaren; diran/diren; eurenkin/ aiekin; zarana/zerana.

b) *Adizkerak edota hitz ezberdinak:* egizuz/egizkizu; oneek/auek; ebenean/zutenean; joiala/zihola; eban/zuen; eutsen/zien; artu eizue/artzazue; eutsen/zien; deusuguz/dizkizugu; deusugu/dizugu; gaizala/gaitzala; eroiazu/ eramazu; artu egizuz/ar itzazu; zakiguz/zakizkigu; jaritsi/ iritsi; dagigun/dezagun; goratu/gores; zaiguzan/zaitzagun.

2. 2. *Lapurdi-Gipuzkoako testuak.* Kasu hauetan ere hurbiltasuna handia nabari da besteetan baino zertxobait txikiagoa baldin bada ere. Errepikaturik aurkituko ditugu aurreko adibideetan agertutako zenbait kasu.

a) *Hizki bakarrekok:* saildu/santu; zira/zera; saildutasun/santutasun; guziaren/guztiaren/ egizkizu/egizkitzu; arno/ardo; hauk/auek; izpiritu/espíritu; ditezen/daitezen; kurutzera/gurutzera; har zazue/artzazue; huntarik/ontatik; emanen/emango; kalitza/kaliza; bekatuak/pekatuak; barkatzeko/parkatzeko; ixuriko/isuriko; oroigarri/ oroigarri; horrengandik/orregatik; heriotze/eriotza; onhartu/onartu; ditugunak/ditugunok; gaituzulakotz/gaituzulako; dagon/dagoen; eremazu/eramazu; osorat/osora; artzainarekin/artzaiarekin; dohatsuarekin/doatsuarekin; heiekin/haiekin; hunen-huneko-hunetan/onen-onekin-onengan

b) *Adizkerak eta hitz ezberdinak:* zola/zihola; dizipulueri/ikasleei; erranez/esanez; baita/da-ta; piztea/piztuera; gogoan hartuz/gogoratzuz; salbamendua-ren/salbamenaren; dauzkitzugu/dizkizugu; dautzugu/dizugu; esperantzan/ itxaropean; hil/ildako; ditzazu/itzazu; ardiets/iritsi; gorensten zaitugula/ gores zaitzagun; guzieldunari/ahalguztidun Orri.

3. **Hirugarren eranskinari buruzko azalpenak:** Lehen begiradan ikus daitekeenez, testu hauek askatasun osoagoz itzulita ageri zaizkigu, hein handi batean bateratze bidea bilatuz euskaratuta baldin badaude ere. Lan hau luzatu egingo

lukeenez ez dugu zehaztasunetara joko. Nahikoa izango dugu Eranskinean begiratu eta bertan ikustea. Testu hauek, gainera, garrantzia txikiagoa dute, esan den bezala, aztertzen ari garen alor honetarako. Dena den, Iparraldekoek hasierako testuarekin jarraitu dutenez, geroago eginiko aldaketei lekurik egin gabe, ez dute Gipuzkoa-Bizkaikoek lortutakoa adineko bateratasunik.

Oharra: Liturgiako bertzioak euskalkien alorrean gaur arte eginiko bateratze ahaleginik handienetarikoaren emaitza eder direla azpimarratuko nuke. Hori dela eta oso onuragarri izango genuke testu horien sakoneko azterketa egitea, euskalki mailan maiztasun handieneko hitzen zerrenda eta, era berean, baita ere zenbait kasutan, Euskal Herri osoan zeharkoa lortuko genuke eta. Badut *Euskararako Hiztegia* egiterakoan jasotako lagina osotu eta orduan hasitako azterketa zehazkiro burutzeko asmorik.

VI. Ondorioak

1. Eliza katolikoak ahalegin handia egin du Euskal Herri osorako ahalik eta liturgia testurik bateratuena prestatzen, azpieuskalkien arteko osozko batasuna lortuz eta euskalki nagusien arteko hurbilketa sakona bultzatuz.

2. Eliz testuen helburu nagusienak, elizkizunetan partehartzen dutenek Jainkoaren hitza eta mezua ahalik eta ondoan jasotea eta elkarren arteko otoitzak ahalik eta hoberen burutzea izanik, ardatz bi horietan oinarritzen da testuak euskaratzerakoan jarraitu izan den bidea ere. Horrela, elkarren arteko otoitz-erantzunak askoz ere batuago eta egunean eguneko irakurgai-otoitzak askozaz ere mintzaira herritarragoan euskaratuak izan dira.

3. Liturgian erabiltzeko euskara batua aipatzerakoan, bestalde, ezin da inoiz ahaztu, liturgiako hizketa, batez ere, ahozkoa dela, hots, entzutekoa edota galdera-erantzun bidez burutzekoa. Hortik sortzen da zenbait bereizketa fonetiko txiki ezberdin agertzea bateko eta besteko bertzioen artean.

4. Gipuzko-Nafarrorako eginiko testua dugu ardatz nagusi eta Bizkaikoa zein Iparraldekoa (Lapurdikoa) haren ondoan burututakoak. Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa ia testu bera direnez, ez legoke eragozpen handirik, jendeak erabiltzen dituen ataletan oso-osozko bertzio bakarra lortu ahal izateko. Iparraldekoa ere, askoz ere hurbilagoko gertatuko litzaiguke ortografia batuari lekua eginez gero. Bestetik, ez litzateke honetan ere ezinezko arazorik izango, aldaketa txiki batzu eginez testu bakarra egiteko.

5. Gaur egun, bestalde, zeharo ugaritu dira Euskal Herri osoko biztanlegoaren arteko harremanak eta horrek, lehen emaniko urrats handi hori guztiz buru-

tzea edo azkeneraino eramatea eskatuko luke, fede berean bat egiten dugun kristauok hizkera berdina erabiliz batasun hori agerian aditzera emateko. Zeharo erraztuko luke alde guztietan mezatan partehartzea eta partehartzaileen artean hurbiltasuna sortuko.

6. Ahalegin guztiak eginda ere, lehenean jarraituko lukete ahozkatzean gertatzen diren ezberdintasunak («j» ahozkatzeko era ezberdinak, palatalizazioa eta abar) baina testu bakarra izateak zeharo erraztuko luke, era berean, elkarren arteko harremanak, hots, otoitz bateratua burutzea.

7. Bide batez aipatu dudan bezala, Elizak bere testuak argitaratzerakoan ortografia batua erabili beharra ere areagotu egin da: a) alde batetik, Iparralde-Hegoaldeko euskalkien arteko zenbait bereizketa ortografia hutsezkoak direla ikusi izan dugu; b) bestetik, egunerik egunera herritar gehiagok parte hartuko du elizkizunetan irakurgai horiek irakurtzen. Eliztar horiek jende gazte eta eskolatu alfabetatuak izango direnez, erraztu egingo zaie lan hori, eliz-testu horiek ikasketak egiterakoan eskuratu duten ortografia batuan eskainiz.

VII. Proposamenak

1. Gazteleraz mintzatzen diren herrialde guztietarako (direla Penintsulakoak direla Ameriketakoak), sarritan beraien arteko aldeak gureak baino handiagoak izanik, oraintsu testu bateratua egitea lortu duten bezala, guk ere jendeak erabiltzen dituen *taldekako otoitz eta erantzunetarako euskara bakarra lortu beharko genuke*.

2. *Mezako otoitz horiek irakatsi beharko genituzke katekesian ere*, erlijioa ikasteen erabilitakoak eta elizan erabiltzen diren bertsiok berdina izan daitezken. Erizpide hori erabiliz euskaratu beharko lirateke elizan erabiltzekoak izan ez arren (*Agur Maria, Agur Erregina, ...*) elkarren arteko otoitzaldietan erabiltzekoak diren gainerako otoitzak, une honetan gertatzen den nahasteari irtenbide egokia emateko.

3. *Eukaristian erabiltzen den II. Kanona ere*, gehien erabilia denez, toki ezberdinetako kristauok biltzen garen kasuetarako testu bakarra izan dadin, *bertsio bakarrean euskaratua beharko genuke*. Honek, meza edozein lekutan ospatzea erraztuko luke, bereziki, zenbait apaizen arteko meza elkartu nagusiak ospatzerakoan.

4. *Gainerakoa testuak*, hots, irakurgaiak, eguneko otoitzak eta abar..., *orain dauden bezala utz daitezke*, bereziki entzumenaren bidez jasotekoak direlako.

VIII. Azken hitzak

Euskal Herriko Eliza katolikoak ahalegin handi bat egin du, dudarik gabe, liturgian erabiltzeko testuak duintasunez euskarara itzultzeko eta euskalkien arteko ezberdintasun mugak gaindituz euskara bateratu bat lortzeko.

Ez dut uste, norbaitek inoiz esan duen bezala, Euskaltzaindiak proposatutako euskara batuari aurrez aurre beste euskara baturik jartzeko asmorik izan denik ere. Liturgiako euskara, testu idatzietan emanda agertzen baldin bada ere, bereziki ahozko euskara da, aztertzerakoan hori kontutan dela jokatu beharko delarik. Euskaltzaindiaren euskara batua, ostera, bereziki idatzirako da, nahiz eta gaur egun ahozkoan ere nahiko erabilia izan.

Dena den, urrats handi bat eman bada ere, euskararen inguru sozio-linguistikoa hainbatetan aldatu egin denez, batez ere komunikabideak eta irakaskuntza direla bide, eta euskararen etorrera, eta hainbatetan baita ere kristau herriarena era bai, haur eta gazteengan dagoenez, nire ustetan beste urrats ausartago bat eman behar du Elizak, Erromatik jasotako gomendioetan proposaturiko testu bakarra lortzeko.

Iparraldeko eta Hegoaldeko kristau euskaldunok sinesmenean eta herri iza-tean bat bera garenez, gaur egun estatu bitan banatuta dugun gure Herriaren batasuna aitortuz Liturgian batasun oso hori lortzea elkarren arteko loturak areagotzeko bide gertatuko litzateke. Ez dut uste, ETB etxeetan jasoteko nahiera bizia erakutsi izan duen Herriko bazter ezberdinetako jenderengan inolazko eragozpenik sortuko lukeenik.

Amaitzeko gaurko Euskaldunon *Egunkarian* (1991-IV-30) dakartzan Make-ako apaiz den Mikel Lekuonaren hitz hauek jaso nahi ditut: »Europako zenbait tokitan mugak hankaz gora jartzen ari diren une hauetan Euskal Herriko Elizak bere jokabidea aldatu egin beharko luke eta arazo honetan aintzindari izan Euskal Herri osoko Eliza dela erakutsiz».

G I P U Z K E R A Z (1. Eranskina)

Agurra/Barkamena

A. Aitaren eta Semearen eta
Espiritu Santuaren izenean .
E. Amen

A. Jesukristo gure Jaunaren grazia
eta Jainko Aitaren maitasuna
eta Espiritu Santuaren batasuna
izan bedi zuekin
E. Eta zure espirituarekin

A. Jaungoiko gure Aitaren
eta Jesukristo gure Jaunaren
grazia eta Pakea zuekin.
A. Bedeinkatua Jaungoikoa
Jesukristo gure Jaunaren Aita
E. Eta zure espirituarekin

A. Jauna zuekin
E. Eta zure espirituarekin

A. Senideok aitor ditzagun gure
pekatuak, misterio santuak
ospatzeko gai izan gaitez.

G. Aitortzen diot
Jainko guztiz aaltsuari
eta zuei ere bai nere senideoi
pekatu egin dudala
gogapen, itz eta egitez,
eta eginbearrak ez egiñez
bai, pekatari naiz.
Orregatik eskatzen diet
Andre Maria beti birjiñari
aingeru eta santu guztiei
eta zuei ere bai, nere senideoi,
otoitz egin dezaiozuela nere alde
Jainko gure Jaunari

A. Erruki dakigula Jainko guztiz aaltsua
eta gure pekatuak barkaturik
eraman gaitzala betiko bizitzara.

A. Erruki, Jauna

E. Pekatu egin dugu-ta

A. Agertu guri, Jauna, zure biotz ona

E. Eta salba gaitzazu.

A. Erruki, Jauna E Erruki, Jauna

A. Kristo, Erruki E. Kristo, Erruki

A. Erruki, Jauna E. Erruki, jauna

A. Jesus, Jauna, E. Erruki, Jauna.

A. Jesus, Jauna, E. Kristo, Erruki

A. Jesus, Jauna, E. Erruki, Jauna.

Aintza/Jaunaren hitza

Aintza zeruetan Jaungoikoari
eta pakea lurrean Aren gogoko gizonei
ain aundi ta eder zaitugulako,

gora zu,

bedinkatua zu,

gorespen zuri,

auspez agur,

eskerrak zuri,

Jainko Jauna, Zeruko Errege

Jaungoiko Aita guztialduna.

Jauna, Seme bakar, Jesukristo

Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots

Aitaren Seme:

Zuk kentzen duzu munduko pekatua

erruki, Jauna;

Zuk kentzen duzu munduko pekatua,

entzun gure deia.

Aitaren eskuin aldean

jarririk zaude Zu,

erruki, Jauna.

Zu bakarrik Santua,

Zu bakarrik Jauna,

Zu bakarrik Goi-Goikoa, Jesukristo,
Espiritu Santuarekin
Jainko Aitaren argitan.
E. Amen.

A. Jaunak esana
E. Eskerrak Zuri, Jauna.

A. Jauna zuekin
E. Eta zure Espirituarekin
A. Jesukristoren Ebanjelioa San (I)-(r)en
liburutik.
E. Aintza Zuri, Jauna.
A. Jaunak esana
E. Eskerrak Zuri, Jauna.

Sinesmena/Eskaintza

Sinisten dut Jainko bat bakarra
Aita guztiz aaltsu, zero-lurren egille,
ageri diren eta ez diren guztiena.
Sinisten dut Jaun bat bakarra, Jesukristo
Jainkoaren Seme bakar,
mende guztiak baiño leen Aitagandik sortua.
Jainkoagandik Jainko, argitik argi
egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko.
Sortua, ez egiña,
Aitaren izate berekoa.
Aren bidez dira egiñak gauza guztiak.
Gu gizonongatik eta gu salbatzeko
jeitsi zen zerutik
eta Espiritu Santuaren egitez
Maria Birjiñagandik gorputz arturik,
gizon egin zen.
Pontzio Pilatoren menpean
gugatik gurutzeratua izan zen,
oiñazetan illa eta obiratua.
Irugarren egunean piztu zen,
Liburu Santuak esan bezala,
zerura igo eta Aitaren eskuin aldean
jarririk dago.

Aintzaz etorriko da berriz,
biziak eta illak epaitzera,
eta Aren erregetzak
ez du azkenik izango.
Sinisten dut Espiritu Santua,
jaun eta bizi-emaille,
Aitagandik eta Semeagandik dena,
Aitarekin eta Semearekin batean
agur eta gorespen berbera artzen duena
eta profeten aoz itzegin zuena.
Sinisten dut Eliza:
bat, santu, katoliku eta apostoluena.
Aitortzen dut bataio bakarra,
pekatuak barkatzeko.
Itxaroten dut illen piztuera
eta datorren munduko bizitza.
Amen.

A. Bedeinkatua, . . .
E. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti
A. Senideok, . . .
E. Jainkoa goresteke
eta gizona salbatzeko.

Prefazioa/Sagaratzea

A. Jauna zuekin
E. Eta zure espirituekin.
A. Gora biotzak.
E. Jaunagan dauzkagu.
A. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
E. Egoki da eta zuzen.

Santu, Santu, Santua
diren guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik dauzka zure diztirak.
Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan.

A. Au da sinismenaren misterioa

E. il eta piztu zerala, Jauna,
Zu berriz etorri arte
au dugu, au, berri ona!

Gure Aita/Jaunartzea/Amaiera

A. Salbatzaileak agindu eta
erakutsiari jarraituz
beldur gabe esan dezagun.
E. Gure Aita, zeruetan zerana:
santu izan bedi zure izena;
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure naia
Zeruan bezala lurrean ere.
Emaiguzu gaur egun ontako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere gure zordunei
barkatzen diegun ezkerro;
eta ez gu tentaldira eraman,
baiña atera gaitzazu gaitzetik.

A. Atera gaitzazu,
E. Zurea duzu erregetza
Zureak ospe eta indarra
orain eta beti.
A. Jaunaren pakea beti zuekin.
E. Eta zure espirituarekin.
G. 1. Jaungoikoaren bildotsa
Zuk kentzen duzu munduko pekatua:
Erruki, Jauna.
2. (berdin)
3. (berdin). Emaiguzu pakea.

A. Ona emen,
G. Jauna, ni ez naiz inor
Zu nere etxean sartzeko
baiña esazu itz bat
eta sendatuko naiz.

A. Jauna, zuekin.

- E. Eta zure espirituarekin.
A. Bedeinkatu,
A. Zoazte Jaunaren pakean
E. Eskerrak Jainkoari.

B I Z K A I E R A Z

Agurra/Barkamena

- A. Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean .
E. Amen
-

- A. Jesukristo gure Jaunaren grazia
 eta Jainko Aitaren maitasuna
 eta Espiritu Santuaren batasuna
 izan bedi zuekin
E. Eta zure espirituarekin
-

- A. Jaungoiko gure Aitaren
 eta Jesukristo gure Jaunaren
 grazia eta bakea zuekin.
A. bedeinkatua Jaungoikoa
 Jesukristo gure Jaunaren Aita
E. Eta zure espirituarekin
-

- A. Jauna zuekin
E. Eta zure espirituarekin

- A. senideok autor daiguzan gure
 pekatuak, misterio santuak
 ospatzeko gai izan gaitезan.

G. Autortzen deutsot

Jainko guztiz aaltsuari
eta zuoi ere bai nire senideoi
pekatu egin dodala
gogapen, itz eta egitez,
eta eginberrak ez egiñez
bai, pekatari naz.

Orregatik eskatzen **deutset**
 Andre Maria beti Birjiñari
 aingeru eta santu guztiei
 eta zuoi ere bai, nire senideoi,
 otoitz egin **dagizuela** nire alde
 Jainko gure Jaunari

A. Erruki **dakigula** Jainko guztiz aaltsua
 eta gure pekatuak parkaturik
eroan **gagizala** betiko bizitzara.

A. Erruki, Jauna

E. Pekatu egin dogu-ta

A. Agertu guri, Jauna, zeure biotz ona

E. Eta salba **gagizuz**.

A. Erruki, Jauna E Erruki, Jauna

A. Kristo, Erruki E. Kristo, Erruki

A. Erruki, Jauna E. Erruki, jauna

A. Jesus, Jauna, E. Erruki, Jauna.

A. Jesus, Jauna, E. Kristo, Erruki

A. Jesus, Jauna, E. Erruki, Jauna.

Aintza/Jaunaren hitza

Aintza zeruetan Jaungoikoari
 eta bakea lurrean Aren gogoko gizonei
 ain aundi ta eder zaitugulako,

gora zu,

bedinkatua zu,

gorespen zuri,

auspez agur,

eskerrak zuri,

Jainko Jauna, Zeruko Errege

Jaungoiko Aita guztialduna.

Jauna, Seme bakar, Jesukristo

Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots

Aitaren Seme:

Zeuk kentzen dozu munduko pekatua

erruki, Jauna;

Zeuk kentzen dozu munduko pekatua,

entzun gure deia.

Aitaren eskui-aldean
jarririk zagoz Zu,
erruki, Jauna.
Zeu bakarrik Santua,
Zeu bakarrik Jauna,
Zeu bakarrik Goi Goikoa, Jesukristo,
Espiritu Santuarekin
Jainko Aitaren argitan.
E. Amen.

A. Jaunak esana
E. Eskerrak Zuri, Jauna.

A. Jauna zuekin
E. Eta zure Espirituarekin
A. Jesukristoren Ebanjelioa San (I)-(r)en
liburutik.
E. Aintza Zuri, Jauna.
A. Jaunak esana
E. Eskerrak Zuri, Jauna.

Sinesmena/Eskaintza

Sinisten dot Jainko bat bakarra
Aita guztiz aaltzu, zeru-lurren egille,
ageri diran eta ez diran guztiena.
Sinisten dot Jaun bat bakarra, Jesukristo
Jainkoaren Seme bakar,
mende guztiak baiño leen Aitagandik sortua.
Jainkoagandik Jainko, argitik argi
egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko.
Sortua, ez egiña,
Aitaren izate berekoa.
Aren bidez dira egiñak gauza guztiak.
Gu gizonokaitik eta gu salbatzeko
jatsi zan zerutik
eta Espiritu Santuaren egitez
Maria Birjiñagandik gorputz arturik,
gizon egin zan.
Pontzio Pilatoren menpean
gugaitik kurutzeratua izan zan,

oiñazetan illa eta obiratua.
Irugarren egunean piztu zan,
Liburu Santuak esan **ebenez**,
zerura igon eta Aitaren eskui-aldean
jarririk dago.
Aintzaz etorriko da barriz,
biziak eta illak epaitzera,
eta Aren
erregetzak
ez **dau** azkenik izango.
Sinisten dot Espiritu Santua,
jaun eta bizi-emoille,
Aitagandik eta Semeagandik dana,
Aitarekin eta Semearekin batean
agur eta gorespen berbera artzen **dauana**
eta profeten aoz itzegin **ebana**.
Sinisten dot Eliza:
bat, santu, katoliku eta apostoluena.
Autortzen dot **bateo** bakarra,
pekatuak **parkatzeko**.
Itzaroten dot illen **biztuera**
eta datorren munduko bizitza.
Amen.

A. Bedeinkatua, . . .
E. Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti
A. Senideok, . . .
E. Jainkoa goresteko
eta gizona salbatzeko.

Prefazioa/Sagaratzea

A. Jauna zuekin
E. Eta zure espirituarekin.
A. Gora biotzak.
E. Jaunagan **daukaguz**.
A. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
E. Egoki da eta zuzen.

Santu, Santu, Santua
diren guztien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik **daukaz** zure diztirak.

Hosanna zeru-goienetan!
Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-goienetan.

A. Au da sinismenaren misterioa
E. Il eta piztu zarala, Jauna,
 Zu barriz etorri arte
 au dogu, au, berri ona!

Gure Aita/Jaunartzea/Amaiera

A. Salbatzaileak agindu eta
 irakatsiari jarraituz
 bildur **barik/baga** esan **dagigun**.
G. Gure Aita, zeruetan zarana:
 santu izan bedi zure izena;
 etor bedi zure erreinua,
 egin bedi zure naia
 Zeruan bezela lurrean ere.
 Emoiguzu gaur egun onetako ogia;
 parkatu gure zorrak,
 guk ere gure zordunei
 parkatzen **deutsegun** ezkerro;
 eta ez gu tentaldira **eroan**,
 baiña atera **gagizuz** gaitzetik.

A. Atera **gagizuz**,
E. Zeurea dozu erregetza
 Zeureak ospe eta indarra
 orain eta beti.

A. Jaunaren bakea beti zuekin.
E. Eta zure espiituarekin.
G. 1. Jaungoikoaren bildotsa
 Zeuk kentzen dozu munduko pekatua:
 Erruki, Jauna.
 2. (berdin)
 3. (berdin). Emoiguzu bakea.

A. Ona emen,
G. Jauna, ni ez naz inor

Zu nire etxean sartzeko
baiña esaizu itz bat
eta osatuko naz.

- A. Jauna, zuekin.
E. Eta zure espirituarekin.
A. Bedeinkatu,
A. Zoaze Jaunaren bakean
E. Eskerrak Jainkoari.

L A P U R T E R A Z

Agurra/Barkamena

- A. Aitaren eta Semearen eta
Izpiritu Sainduaren izenean .
E. amen
-

- A. Jesukristo gure Jaunaren grazia
eta Jainko Aitaren maitasuna
eta Izpiritu Sainduaren batasuna
izan bedi zuekin
E. Eta zure izpirituarekin
-

- A. Jaungoiko gure Aitaren
eta Jesukristo gure Jaunaren
grazia eta bakea zuekin.
A. Benedikatua Jaungoikoa
Jesukristo gure Jaunaren Aita
E. Eta zure izpirituarekin
-

- A. Jauna zuekin
E. Eta zure izpirituarekin

- A. **haurrideak** aitor ditzagun gure
bekatuak, misterio sailduak
ospatzeko gai izan gaitezen.

- G. Aitortzen diot

jainko guziz ahaltuari
 eta zueri ere bai nere **haurrideri**
 bekatu egin dutala
 gogoeta, itz eta egitez,
 eta egin beharrak ez eginez
 bai, **bekatore** naiz.
Horrengatik eskatzen diotet
 Andre **dena** Maria beti Birjinari
 aingeru eta saildu guzieren
 eta zueri ere bai, nere **haurrideri**,
 otoitz egin **dezozen** nere alde
 Jainko gure Jaunari

A. **Urrikal** dakigula jainko guziz ahaltua
 eta gure bekatuak barkaturik
 ereman gaitzala betiko bizitzera.

A. **Urrikal**, Jauna

E. Bekatu egin **baitugu**

A. **Ager** guri, Jauna, zure bihotz ona

E. Eta salba gaitzazu.

A. **Urrikal**, Jauna E **Urrikal**, Jauna

A. **Kristo**, **Urrikal** E. **Kristo**, **Urrikal**

A. **Urrikal**, Jauna E. **Urrikal**, jauna

A. Jesus, Jauna, E. **Urrikal**, Jauna.

A. Jesus, Jauna, E. **Kristo**, **Urrikal**

A. Jesus, Jauna, E. **Urrikal**, Jauna.

Aintza/Jaunaren hitza

Aintza zeruetan Jaungoikoari
 eta bakea lurrean Aren gogoko gizoneri
 hain aundi ta eder zaitugulakotz,
 gora zu,
benedikatua zu,
 gorespen zuri,
ahuspez agur,
 eskerrak zuri,
 Jainko Jauna, Zeruko Errege
 Jaungoiko Aita guzizalduna.

Jauna, Seme bakar, Jesukristo
Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots
Aitaren Seme:
Zuk kentzen duzu munduko bekatua
urrikal, Jauna;
Zuk kentzen duzu munduko bekatua,
entzun gure deia.
Aitaren eskuin aldean
jarririk zaude Zu,
urrikal, Jauna.
Zu bakarrik Saindua,
Zu bakarrik Jauna,
Zu bakarrik Goi-Goikoa, Jesukristo,
Izpiritu Sainduarekin
Jainko Aitaren argitan.
E. Amen.

A. Jaunak **errana**
E. Eskerrak Zuri, Jauna.

A. Jauna zuekin
E. Eta zure Izpirituarekin
A. Jesukristoren Ebanjelioa (I) **donen**
liburutik.
E. Aintza Zuri, Jauna.
A. Jaunak **errana**
E. Eskerrak Zuri, Jauna.

Sinesmena/Eskaintza

Sinesten dut Jainko bat bakarra
Aita guziz **ahaltsu**, zeru-lurren egile,
ageri diren eta ez diren guziena.
Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesukristo
Jainkoaren Seme bakar,
mende guziak baino lehen Aita **ganik** sortua.
Jainkoa **ganik** Jainko, argitik argi
egiazko Jainkoa **ganik** egiazko Jainko.
Sortua, ez egina,
Aitaren izaite berekoa.
Haren bidez dira eginak gauza guziak.

Gu gizonen gatik eta gu salbatzeko
jautsi zen zerutik
eta Izpiritu Sainduaren egitez
Maria Birjina ganik gorputz harturik,
gizon egin zen.
Pontzio Pilatoren menpean
gu gatik gurutzeratua izan zen,
oinazetan hila eta hobiratua.
Hirugarren egunean piztu zen,
Liburu Sainduak erran bezala,
zerurat igan eta Aitaren eskuin aldean
jarririk dago.
Aintzaz etorriko da berriz,
biziak eta hilak jujatzerat,
eta Haren erregetzak
ez du azkenik izanen.
Sinesten dut Izpiritu Saindua,
jaun eta bizi-emaile,
Aita (gan)ik eta Semea (gan)ik dena,
Aitarekin eta Semearekin batean
agur eta goresmen berbera hartzen duena
eta profeten ahoz hitz-egin zuena.
Sinesten dut Eliza:
bat, saildu, katoliko eta apostoluena.
Aitortzen dut bataio bakarra,
bekatuak barkatzeko.
Igurikatzen dut hilen piztea
eta datorren munduko bizitza.
Amen.

-
- A. Benedikatua, . . .
E. Benedikatua Zu, Jauna, orai eta beti
A. Haurrideak, . . .
E. Jainkoa gorestekeo
eta gizona salbatzeko.

Prefazioa/Sagaratzea

- A. Jauna zuekin
E. Eta zure izpirituarekin.
A. Gora bihotzak.
E. Jaunari dauzkagu.

- A. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
E. Egoki da eta zuzen.
-

Saindu, Saindu, Saindua
diren guzien Jainko Jauna.
Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.
Hosanna zeru-gorenetan!
Benedikatua, Jaunaren izenean datorrena.
Hosanna zeru-gorenetan.

- A. **Hau da sinestearen misterioa**
E. hil eta piztu zirala, Jauna,
 Zu berriz etorri arte
 hau dugu, hau, berri ona!
-

Gure Aita/Jaunartzea/Amaiera

- A. Salbatzaileak **manatu** eta
 erakutsiari jarraituz
 beldur gabe **erran** dezagun.
E. Gure Aita, zeruetan zirena:
 saindu izan bedi zure izena;
 etor bedi zure erreinua,
 egin bedi zure **nahia**
 Zeruan bezala lurrean ere.
 Emaguzu gaur egun **huntako** ogia;
 barkatu gure zorrak,
 guk ere gure zorduner
 barkatzen diegunaz **geroz**;
 eta ez gu tentaldirat ereman,
 bainan atera gaitzazu gaitzetik.
-

- A. Atera gaitzau,
E. Zurea duzu erregetza
 Zureak ospe-eta indarra
 orai eta beti.
A. Jaunaren **bakea** beti zuekin.
E. Eta zure **izpirituarekin**.
G. 1. Jaungoikoaren bildotsa
 Zuk kentzen duzu munduko **bekatua**:
 Urrikal, Jauna.

2. (berdin)
3. (berdin). Emaguzu bakea.

A. Huna hemen,
G. Jauna, ni ez naiz on
Zu nere etxean sartzeko
bainan errazu hitz bat
eta sendatuko naiz.

A. Jauna, zuekin.
E. Eta zure izpituarekin.
A. Benedikatu,
A. Zoazte Jaunaren bakean
E. Eskerrak Jainkoari.

G I P U Z K E R A Z (2. Eranskina)

Santu zera, bai, Jauna
eta santutasun guztiaren iturri.
Santu egizkizu, bada, ogi ta ardo auek
zure Espiritua isuriz
Jesukristo gure Jaunaren
gorputz eta odol
guretzat egin daitezen.
Berak, saldu zutenean
eta bere gogoz gurutzera zihoala,
ogia artu eta, eskerrak emanez,
zatitu zuen
eta bere ikasleei eman zien esanez:
Artzazue eta jan guztiok ontatik
au nere gorputza da-ta,
zuentzat emango dena.
Afal ondoan, berdin,
kaliza arturik berriz ere eskerrak emanez
bere ikasleei eman zien, esanez:
Artzazue eta edan guztiok ontatik
au nere odolaren kaliza da-ta,
itun berri eta betikoaren odola,
zuentzat eta guztientzat
pekatuak parkatzeko isuriko dena.
Egizue hau nere oroigarri.
Orregatik, Jauna

zure Semearen eriotza eta piztuera gogoratuz
biziaren ogia eta salbamenaren kaliza
eskaintzen dizkizugu,
Zuri eskerrak emanaz,
aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.
Eta apalik eskatzen dizugu,
Kristoren gorputz-odolak artzen ditugunok
Espiritu Santuak bat egin gaitzala.
Gogoan izan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza:
eramazu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin
I. gure Aratzai Arekin
eta elizgizon guztiekin batean
Gogoan izan, Jauna,
pizteko itxaropenean joan diren
gure senideak eta ildako guztiak:
ar itzazu zure aurpegiaren argitan.
Erruki zakizkigu, arren,
guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun,
Jainkoaren Ama Maria doatsuarekin
apostolu santuekin
eta, gizaldi guztietan
zure adiskide izan diren santuekin:
aiekin batean gores zaitzagun
Jesukristo zure Semearen bitartez.
Onen bitartez, Onekin eta Onengan
Zuri, Aita Jaungoiko aalguztidun Orri
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.
Amen.

Gure Aita ondoko otoitzak

Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik;
emaiguzu pakea gure egunotan
zure errukiari esker
pekatutik garbi bizi gaitezen
eta estualdietan sendo,
betiko zorionaren itxaropenean,

Jesukristo gure Salbatzailea
noiz etorriko den zai gaudela.

Jesukristo gure Jauna,
Zuk esana da apostoluei:
«Pakea uzten dizuet, nere pakea ematen;
Begira zure Elizaren sinismenari,
eta ez gure pekatuei;
eta, zure gogoa den bezala
emaiozu Elizari pakea, eman batasuna.
Errege bizi bait zera gizaldi eta gizaldietan
Amen. ,

B I Z K A I E R A Z

Santu zara, bai, Jauna
eta santutasun guztiaren iturri.
Santu **egizuz**, bada, ogi ta ardao **oneek**
zeure Espiritua isuriaz
Jesukristo gure Jaunaren
gorputz eta odol
guretzat egin daitezzen.
Berak, saldu **ebenean**
eta bere gogoz kurutzera **joiala**,
ogia artu eta, eskerrak emonez,
zaitu **eban**
eta bere ikasleei emon **eutsen** esanez:
Artu eizue eta jan guztiok onetatik
au neure gorputza da-ta,
zuentzat emongo daa.
Afal ondoan, bardin,
kaliza arturik barriz ere eskerrak emonez
bere ikasleei emon **eutsen**, esanez:
Artu eizue eta edan guztiok onetatik
au neure odolaren kaliza da-ta,
itun barri eta betikoaren odola,
zuentzat eta guztientzat
pekatuak parkatzeko isuriko dana.
Egizue hau neure oroigarri.
Orregaitik, Jauna
zure Semearen eriotza eta biztuera gogorátuz
biziaren ogi eta salbamenaren kaliza

eskeintzen **deutsuguz**,
Zuri eskerrak emonez,
altarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.
Eta apalik eskatzen **deutsugu**,
Kristoren gorputz-odolak artzen ditugunok
Espiritu Santuak bat egin **gaizala**.
Gogoan izan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zure Eleizea:
eroiazu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin
I. gure Artzainarekin
eta elizgizon guztiekin batean
Gogoan izan, Jauna,
bizteko itxaropenean joan diran
gure senideak eta ildako guztiak:
artu egizuz zeure arpegiaren argitan.
Erruki **zakiguz**, arren,
guk guztiok betiko bizitza **jaritsi dagigun**,
Jainkoaren Ama Maria doatsuarekin
apostolu santuekin
eta, gizaldi guztietan
zure adiskide izan diran santuekin:
eurekin batean **goratu zaiguzan**
Jesukristo zure Semearen bitartez.
Onen bitartez, Onekin eta Onengan
Zuri, Aita Jaungoiko aalguztidun Orri
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.
Amen.

Gure Aita ondoko otoitzak

Atara **gagizuz**, Jauna, gatx guztietatik;
emoiguzu **bakea** gure egunotan
zure errukiari esker
pekatutik garbi bizi gaitez
eta estualdietan sendo,
betiko zorionaren itxaropenean,
Jesukristo gure Salbatzailea
noiz etorriko den zain **gagozala**.

Jesukristo gure Jauna,
 Zeuk esana da apostoluei:
 «Bakea uzten deusut, neure bakea emoten;
 Begira zeure Eleizearen sinismenari,
 eta ez gure pekatuei;
 eta, zure gogoa denez
 emoiizu Eleizeari bakea, emon batasuna.
 Errege bizi zara-ta gizaldi eta gizaldietan
 Amen. ,

L A P U R T E R A Z

Saindu zira, bai, Jauna
 eta saindutasun guziaren iturri.
 Saindu egizkitzu, bada, ogi ta arno hauk
 zure Izpiritua isuriz
 Jesukristo gure Jaunaren
 gorputz eta odol
 guretzat egin ditezen.
 Berak, saldu zutenean
 eta bere gogoz kurutzera zoala,
 ogia hartu eta, eskerrak emanez,
 zatitu zuen
 eta bere dizipulueri eman zioten erranez:
Har zazue eta jan guziek huntarik
hau nere gorputza baita,
 zuentzat emanen dena.
 Afal ondoan, berdin,
 kalitza harturik berriz ere eskerrak emanez
 bere dizipulueri eman zioten, erranez:
Har zazue eta edan guziek huntarik
hau nere odolaren kalitza baita,
batasun berri eta betikoaren odola,
 zuentzat eta guzientzat
 bekatuak barkatzeko ixuriko dena.
 Egizue hau nere oroigarri.
Horrengatik, Jauna
 zure Semearen heriotze eta piztea gogoan hartuz
 biziaren ogia eta salbamenduaren kalitza
 eskaintzen **dauzkizugu,**
 Zuri eskerrak emanez,
 aldarean zure zerbitzari onhartu gaituzulakotz.

Eta apalik eskatzen **dautzugu**,
Kristoren gorputz-odolak **hartzen** ditugunak
Izpiritu Sainduak bat egin gaitzala.
Gogoan izan, Jauna,
mundu guzian zabaldurik dagon zure Eliza:
eremazu maitasun osorat,
I. gure Aita Sainduarekin
I. gure Artzainarekin
eta elizgizon guziekin batean
Gogoan izan, Jauna,
pizteko **esperantzan** joan diren
gure **haurrideak** eta **hil guziak**:
har ditzazu zure aurpegiaren argitan.
Urrikal zakizkigu, **otoi**,
guk **guziek** betiko bizitza **erdiets** dezagun,
Jainkoaren Ama Maria dohatsuarekin
apostolu **sainduekin**
eta, **gizaldi** guzietan
zure adiskide izan diren **sainduekin**:
haiekin batean **goresten zaitugula**
Jesukristo zure Semearen bitartez.
Hunen bitartez, **Hunekin** eta **Hunetan**
Zuri, Aita Jaungoiko **guzialdunari**
Izpiritu Sainduarekin batean,
ospe eta aintza **guzia**
gizaldi eta **gizaldi** guzietan.
Amen.

Gure Aita ondoko otoitzak

Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guzietatik;
emaguzu **bakea** gure egunetan
zure **urrikalmenduari** esker
bekatutik garbi bizi gaitezen
eta **hersturetan** sendo,
betiko zorionaren **esperantzan**,
Jesukristo gure Salbatzailea
noiz etorriko den zain gaudela.

Jesukristo gure Jauna,
Zuk **errana** da apostolueri:
«**Bakea** uzten **dautzuet**, nere **bakea** emaiten;

Beha zure Elizaren sinesteari,
eta ez gure bekatueri;
eta, zure gogo den bezala
emozu Elizari bakea, eman batasuna.
Errege bizi baitzera gizaldi eta gizaldietan
Amen. ,

G I P U Z K E R A Z (3. Eranskina)

Isaias profetaren liburutik

Isaias-ek, Amos-en semeak,
Juda-ri eta Jerusalem-i buruz
izandako ikuskaria: Azken-egunetan,
Jaunaren etxearen mendia sendo
izango da ezarria:
muiño guztien gaindi,
mendi guztien buru;
atzerri-jendeak ara joko du.
Erri asko joango dira, esanez:
«Atzozte, igo gaitezen jaunaren mendira,
Jakob-en Jainkoaren etxera:
Berak erakutsiko dizkigu bere bideak,
eta Aren bideziorretan ibilliko gera;
Sion-dik aterako bait da legea,
eta Jerusalem-dik jaunaren itza».
Berak epaituko ditu atzerriak,
auzira ekarriko erriak eta erriak.
Golde biurtuko dituzte ezpatak,
eta igitai, lantzak.
Ez du errik erriren aurka
ezpatarik jasoko,
ez dira gudurako berriz trebatuko.
Zatoz jakob-en etxe,
gabiltzan jaunaren argitan.

San Paulo apostoluak erromatarrei

Senideok: ezagutu ezazue
bizi zareten garaia:
ordua da, lotarik esnatzeko;
sinisten asi-berri artan

baiño urbillago dugu
gaur gure salbamera.
Badijoa gaua; gainean dugu eguna;
ken ditzagun,
beraz, illunpetako egintzak
eta jantzi argizko armak.
Gabiltzan jator, egun-argiz bezala;
ez jan-edankerietan eta ordikerietan;
ez loikerietan eta neurrigabekerietan;
ez aserre eta elkarrentzako bekaitzetan.
Ar ezazue Jesukristo Jauna soiñeko,
eta zuen gorputza zaintzeak
ez bitza piztu griña txarrak.

BIZKAIERAZ

Isaias profetaren liburutik

Isaiasek, Amosen semeak,
Judari eta Jerusalem
buruz izandako ikuskaria:
Azken egunetan,
Jaunaren etxearen mendia
sendo izango da ezarria;
tontor guztien gainetik,
mendi guztien buru;
atzerri-jenteak ara joko dau.
Erri asko joango dira, esanez:
«Zatoze, igon daigun Jaunaren mendira,
Jakoben Jainkoaren etxera;
Berak erakutsiko deuskuz bere bideak,
eta Aren bidezidorretan ibiliko gara;
izan ere, Siondik dator legea,
eta jerusalendik Jaunaren berbea».
Berak epaituko ditu atzerriak,
auzira ekarriko erriak eta erriak
Golde biurtuko dabez ezpatak,
eta igitai, lantzak.
Ez dau errik erriren aurka
ezpatarik jasoko
ez dabe geiago gudagintzan ikasiko.

Zatoz, Jakoben etxea,
gabiltzan Jaunaren argitan.

San Paulo apostoluak erromatarrei

Senideok: Ezagutu egizue
bizi zareen sasoa;
ordua da lotatik esnatzeko;
sinesten asi-barri aretan baino
urrago dogu gaur gure salbamena.
Badoa gaua, gaiñean dogu eguna;
kendu daiguzan, beraz, illunpeko egintzak
eta jantzi argizko armak.
Gabiltzan jator, egunargiz lez;
ez jan-edankerietan edo
mozkorkerietan; ez loikerietan
eta neurribakokerietan
ez asarre eta alkarren bekaitzetan.
Artu egizue Jesukristo Jauna soiñekotzat,
eta zuen gorputza zaintzeak
ez begiz biztu griña txarrak.

L A P U R T E R A Z

Izai profetaren liburutik

Izai, Amozen semeak, Juda eta
Jerusalemez ikusia:
Azken egunetan, Jaunaren etxea
dagon mendia,
mendien kaskoan ezarria izanen da,
eta mendixka guzien gainetik.
Jendalde guziak hartarat
etorriko dira frumilka.
Herri asko joanen dira eta erranen dute:
«Zatozte, igan gaiten jaunaren mendirat,
Jakoben Jainkoaren etxera.
Berak erakutsiko dauzkigu bere bideak,
eta haren bidexketan ibiliko gira.
Ziondik jaliko baita Legea,
eta Jerusalemetik jaunaren Hitza.
Jauna juje izanen da jendalden artean,

eta ez dute gehiago gudukatzen ikasiko.
Zato, Jakoben etxea,
ibil gaiten jaunaren argian.

Jondoni Paulok erromanoeri

Haurrideak, jakin-ezauz:
tenorea dugu lotarik atzartzeko.
sinesberri hartan baino hurbilago
dugu egun gure salbamendua.
Gaua badoa, eguna hurbildua.
Ken ditzagun ilunbetako egintzak,
eta jauntz egun argitako armak.
Egun argiz bezala, ibil gaiten gizonki,
ez ase-joko eta mozkorkerietan,
ez lizunkeri eta lohikerietan,
ez aharra eta bekaizgoetan,
Bañan jauntz Jesu Kristo gure jauna;
etzauzela haragiaz griñarik har,
haren gutizia tzarrak asetzeko.